



7ARR

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
13 n. ZENBAKIA

IRAILLA
— 1978 —



**ARRATE'N
PELI ALDAZABAL'EN GOMUTAZ
UMEEN IDATZ-SARIKETE
(URRILLEAN)**



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU

EUSKERA TA BATASUNA

OPORRETIK LANERA. —Udako atsedeen-aldia, batzuntzat luzea, baste batzuntzat laburragoa eta askorentzat ames utsean geratua, igaro jaku eta lanaldi luze batera sartzeko gertu gagoz.

Ez gaitu lanak ainbaste ikaritzen, baiña lanaren inguruan sortuko diran eztabaidak eta goraberak geiago samintzen gaitue.

Eta lanaldi barri onetan olako goraberak ugari izango diralako ustea daukagu.

Dana dala, ez dago beste biderik, uretara sartu eta uger eginbearra baiño.

* *

EUSKEREAREN ALDE. —Lanaldi luze onetan, arlo on bat beintzat, euskerearen arloa izango da. Ezertxu irabazi barik egin bearko doguna. Beste lan batzutan ateraten dogun irabazi apurretik geuk emonda egin bearko dogun lana.

Baiña maite dogu euskerea, askok uste dauan baiño geiago maite be, eta lan onetan jarraituko dogu arnaseak laguntzen daukun artean.

Ez gara euskerearen maitale bakarrak, ez. Baiña beste batzuk lanak geiago balio dau. Euskereak biziteko emoten dautse eta baten batzui ondo biziteko beste be bai. Zorionekoak dirala esan bearko dogu.

* *

LENENGO EKIÑALDIA. —Arlo onetan izango dogun lenengo ekiñaldia Bergara'ko Batzarra izango da.

Batzar au Euskaltzaindia'k eratua da eta «VIII.BILTZARRA» deritxo.

«Siadeco»k eratuta, eritxi-batzea be egin dabe. Euskera batua noraiño zabaldu dan jakiteko.

«Txostenak» be artzen ditue, bagillaren amaia baiño lenago eroanak ba'dira.

Erabagiak Euskaltzaindiak artuko ditu, artu bear dirala uste ba'dau.

Batzar aretetara sartzeko, izena-emoten danean, 1.000 pezeta ordaindu bearko dira. Ona emen, barriro be, lan egin eta norberak dirua emoteko era ederra.

* *

BIZKAIEREAREN ESKUBIDEAK. —Bizkai'ko euskerea indartzeko lan eta lan diarduenok, zer itxaron geinke ortik?

Egia esan, ez dogu ezelako argitasunik ikusten.

Orain-arte Euskaltzaindiak izan dauan jokabidea jakiñik eta bera dala batzar orren eratzaille ikusirik, ez daukagu itxaropenerako zio aundirik.

Egin dira batzarrak bialdu dira Euskaltzaindi'ra eritxiak eta eskariak, baiña alatz edo mirari aundiren bat izaten ez ba'da, lengo egoeran geratuko gara.

* * *

ZURRUMURRU BILDURGARRIA. —Eta zer? Orrelan jarraitu?

Zurrumurru bildurgarri bat eldu da gure belarrietara eta agertu bearrean aurkitzen gara.

Bergara'n euskaldunik geienak onartzeko lako bide egoki bat artzen ez ba'da, idazletalde on batek bigarren Euskaltzaindia sortuko ei dau. Ori entzun dogu eta izan leitekena da. Zapalkuntzaren ondoren ikaragarria da ori eta zapalduak asko diranean, beti agertzen da aurrelari askatzaillea eta onek bere taldea bear izaten dau.

* *

ETA BATASUNA? —Ez ete dago ba euskaldunak batasunera bultzatuko dituan biderik. Geure-geurea dogun euskerearen aurrez be banatuta eta burrukalari ekin bearko eta dogu?

Euskaldunak batzeko ez dago beste biderik, benetako demokrazia baiño eta euskerearen demokrazia, sendietan errietan, erialdeetan, edo, obeto esanda, toki-euskeran, errieuskeran eta euskalkian asten. Eta euskerearen berezitasun oneik zapaltzen diran artean, ez dago bakerik, euskerea galtzeko arriskua dago.

Batasunaren bidea ez da, goian egin eta bean ezarri, batasunak beko euskeran izan bear ditu sustriak, euskalki guztiak osotu bear dabe, edo burrukea sortuko da.

ONEEK

ALA

ONEIK?

ZER aldizkariko 12'garren zenbakian ONEEK ALA ONEIK idazlantxo interesgarria irakurri dot. Puxana jaunaren euskal-arlo au oso garrantzi andikoa cia, izan be, bizkaiera osoturako bide argia darabil-eta.

Oraingoan be sarri erabilten eta idazten dan gaia ekarri dausku. Berak diñoanez, «izenorde erakuslea batena danean, ez daukagu alderik», bizkaitar guztiok bardin erabilten eta idazten dogu: *Au* etorri da, *orrek* egin dau, *arek* jan dau. Alan be, «askorena danean edo bat baiño geiago adierazoten dauanean», bizkaierazko idazleak ez dabe guztiak bardin idazten: batzuek *oneik*, *orrek* eta *areik* idazten dabe; beste batzuek *oneek*, *orreek* eta *areek*, eta beste batzuek *onek*, *orrek* eta *arek*, singularrean lez. Eta «emen ez daukagu batasunik bizkaieraz» diño egoki Puxana adiskideak. Alantxe da.

Eta gero beste au: «Nik neuk ez dodala *oneik*, *orrek*, *areik* eta abar errian entzun». Azken onetan ez nator bat Puxana jaunagaz. Egia esan, nik nire idazkeran azken-orok aukeratu ba'dodaz (*oneik*, *orrek* eta *areik* pluralean), singularrekoakaz ez naasteko izan da, Azkue'k «con distinta entonación» esaten dirala esanarren be. Eta erriak, ain zuzen be, erabilten dauz, obe ez! (bestela ez nebazan aukeratuko). Begira Orixe jaunak egin eban *Erizkizundi Irukoitza'k* Bizkaia'n jaso ebana:

Estos = onek: 70 erritan
» = ne

Estos = onek: 70 erritan
» = oneek: 3 »
» = oneik: 28 »

Esos = orrek: 69 erritan
» = orreek: 5 »
» = orreik: 28 »

Aquellos = arek: 49 erritan
» = areek: 2 »
» = areik: 8 » (8 irar - utsa cia, urrean, 28 idatzi bearrean)

Beraz, 28 erritan oneik, orreik eta areik erabilli ezkeru, naikoa zabaldua dagozala esan daikegu.

Oneek, *orreek* eta *areek*, barriz, askoz gutxiagotan: 3, 5 eta 2 erritan, Mogel izan zan inguruetan, ain zuzen be. Orrexegaitik erabilli ebazan, urrean.

Ori orrela izan ezkeru, bidezkoa da asko diranetan oneintzat, orrein tzat eta areintzat esatea (para estos, esos, aquellos). Baiña *onekana*, *orrekana* ta *arekana* (*i* bagarik), bat danean *onegana*, *orregana* ta *aregana* da-ta.

Argi geratzen da?

OPOR OSTEAN, IKASTETXERA!

Oporrak igaro ondoren, ikastetxera abiatzen gara danok. Guraso eta ume, maixu eta andereño, danok dogu arazo bardiña: urtearo barriko ikasketak eta eziketa.

Gure aurpegiak irripartsu ageri dira. Geien baten alkar ezagutzen dogu, eta orra or gure alkar apurrak.

Baiña ba dira, ezezagun batzuk be. Or ditugu dantzari, negarrez edo erdi negarrez amaren eskutik oratuta eskolaurreko izango diran umetxuak be.

* * *

OPORRAK INDARBARRITZEKO.— *Per esanik ez bederatziz illabetan umeak erabiltzen daben joan-etorri ostean, opor batzuren bearitzen berezi bat dabena. Urtearoko ileetan umeak adiñekoak aiña ordu sartzen dabe eta, egia esan, indarbarritu bearra izaten dabe. Beraz, udako ille orrek egoki datorkez.*

Baiña batzutan ez da orrela izaten. Urtearo neketsu baten ostean, ez dabe uda atsegin aundikorik be izaten. Eta au, jakiña, gurasoen erruz. Urtearo barruan, irekaslearen ardurapean dagozanean, apur bat urduriago edo gaiztotxoago izan arren, ez dautse gurasoei ainbeste min emoten. Baiña... udan... ai udan! Norberaren gogoz ez badabiltz, «aspergarriak dira», «nor ibilli eurekaz», «semeak onetarako» eta beste antzerako batzuk esaten jakez.

* * *

NOIZ ELDUKO IRAILA.— *Umeak geien urduriak diranez, ez dira bat be baketsuak, eta beraz sarritan, gogaigarri eta nekegarri izateraiño eltzen dira. Euren izate au dala eta, sarritan esan bearrezekoak esaten jakez, esate baterako gorago aitatu ditugun esaldien antzerakoak. Jakiña, umeak entzuneko danak gordetzen ditu bere barruan, eta ondorio lez, gurasoen asmoa izartzeraiño eltzen dira: «noiz elduko ete iraila?»*

Esaldi au itzez itz entzun ez badau be, esanaia beretzat ondorio argi bat da: iraila gurasoentzat askatasun illea da, aurrerantzean egunen barruan ez naue etxean izango eta.

* * *

UMEAREN SAMIÑA.— *Egoera onetan, eta sarritan bere izakera aztertzeko aalmenik ez dauan ezkeror arantza bi izaten ditu:*

Leenengo eta bein, bere burua etxekotzat ez sentitzeraiño eltzen da: «zelan izango naz, ba, etxeko gurasoen bizitzarako eragozpena banaz», edo «nekegarri banaiake», edo «aspergarri jakezan gauzak baiño ez baditut egiten?»

Bigarrenez, bere barruko samintasun orretan gurasoengandiko maitasuna bera be estabaidatzera eltzen da. Ona emen ezaugarri diran euren esaldi batzuk:

«Ez naue maite».

«Nork leukezan zure gurasoak lakoak».

«Etxean egon ez naiten, au edo bestea ikastera bialtzen naue», eta abar.

* * *

AN KONPONDUKO ZATTUE.— *Umearen izakerak kontuan artu ezik, benetan arriskutsuak ditugu udako illeak. Azkenean, irailan arazoak amaitzeko ustetan izaten dira danak: gurasoak, egunen barruko ordu luzeetan ume ardurarik ez dabelako izango; umeak, beste adiskideekaz barriro batzean erdi aitzu egingo dabezalako.*

Baiña «noiz elduko ete da iraila» esaldia baiño arriskutsuagorik ba dogu. Umearen urduritasunak sortutako egoeraren zuzenbidea irailan jarri bearrean, irekasleengan jartzen badogu, ainbat okerrago izango da. Eta zenbat biderrez esaten ete jake (zoritzarrez baita iru urtegaz asi barri izango diranei be) «an konponduko zaitue irekasleak», «irakasleekaz orrela eziña izango dozu», «zigortuko zaitue, bai» eta abar, eta abar.

Zer dala eta jokabide au? Irekasleak zigortzaille izan bearra ete dau, ba?

Ba da guraso eta irekasle artean jokabide bardintsu ugariago izan bearrik.

AMA BIRJĪNAREN ITURRIA

ARRIURDIN.—Aitzgorri deritxon mendian, Arriurdin izeneko pauso bat dago.

Andik zear doaz Goyerritik Arantzazu'ko santutegira dabilzan erromes ugariak.

Iturri eder bat dago Arriurdin'go pauso orren ondoan. Eta andik edaten dabe, auspezka, bidean egarritu diran erromesak.

Arri zabal bat dau iturriak alboan; eta arriak, zulo biribillak lerroka: Andra Mari'k, iñoz, andik igaro zanean egindako zuloak. «Andra Mari'ren iturri» dau orregatik bere izen.

ONDARRU'KO ARRANTZALEAK.—Arantzazu'ko Andra Mari'k beren santutegitik alde egiten ei eban, egun askotan, premiñetan ebiltzan bere seme gaixoai laguntzeko... eta bere ardiak galtzeko arriskueta eukazan, artzaiñari; eta bere uztak arri-ekaitzpean eukazan, nekezariari... ; eta itsasoan borrokan ebillan, arrantzaleari...

Gau baltz baten, atunetan ebiltzan Ondarru'ko arrantzaleak, Kantauri-itsaso latzean.

Udabarriko bokartaro txarra, eta udaldiko sardiñaro txarragoaren ondoren atunaro onetan jarrita eban euren itxaropen osoa arrantzale gaixoak.

Orregaitik urten ziran itsasora, goiz aretan, naiz eta itsaso zakarra egon. Eta sekulako arrainketa ederra egin eban, euren biotzetako Andra Mari'ri esker.

Eta euren ontzi-tresnak jasota, kai aldera etozenean... orra, aizea zakartu... olatuak arrotu... eta itsas-ontziak dantzan asi...

ANDRA MARI'REN MIRARIA.—Eurem umeen janaria arriskuan, eta euren bizia be arriskuan ikusirik, Arantzazu'ko Andra Mari'ri otoizka asi ziran, estu ta larri. Eta aren santutegira joateko promesa be egin eban, estutasun aretatik onik ateraten ba'ebazan.

Eta Arantzazu'ko Andra Mari'k arrantzale gaixo arein otoitzak entzun... bere santutegiko altara ederra itzi... eta arrantzale larrituak zengozan itsas irakin aretara abiatu zan.

Eta arein ontzi gaiñetan zutunik jarririk, baiñola Jesus, bere Seme maitea Galilea'ko itsasoan lez, itsaso aserretuari agintzen asi zan:

—Geldi or, aize zakar ori!... Baketu zure olatu arro orreik!...

Eta sekulako barealdia sortu zan, berealako batean, lengo itsaso zakar eta asarretu aretan.

Arrantzaleak orduan, Ondarru'ko euren kaiera, alai eta pozkor; eta Arantzazu'ko Andra Mari, bere santutegira, alai eta pozkorrago...

ANDRA MARI'REN JARLEKUA.—Bere soigaiñekoa itsas kresalez bustirik ei ekarren Andra Mari'k... eta barruko jantziak itsas arez beterik... eta guztiz nekatu ta egarriturik Bera.

Orregatik, Arantzazu'rako Arriurdin'go pausora iritxitakoan, ango arri zabalean jesarri, eta atse-denaldi eder bat artu ei eban. Eta aregaitik ei dau arri arek «Andra Mari'ren jarlekua'ren» izan ori.

Eta gero, aren ondoko beko iturrira joan ei zan, bere egarri bizia asetzera. Eta auspez makurtu ta, aren inguruko arrian jarri ei ebazan beren eskueta atzamarrak.

Eta berton itzi ei ebazan, betiko itzi ere, beren atzamar zerutiar orrein lorratzak. Eta lorratzaz batera, «Andra Mari'ren iturri» izan eder ori ere.

BERGARA'KO BATZARRERA

EZPATAK GOIAN. Euskerearen kondairan garrantzi aundikoa izango dan jazoera bat izango dogu irail onelan: **EUSKAL-TZA INDIAREN VIII. BILTZARRA ELEIZALDEREN MENDEURRENA BERGARAN 1978.**

Kondairan garantzai aundikoa, baiña onerako ala txarrerako? Urtenbide bi izan leitekez: Guztiok euskerearen aurrean burua makurtu eta alkar-lanean asteko baGa, «geuk irabazi dogu eta geurea aurrera», esatekoa bestea.

Lenengo bidea da egokia, baiña gaitxa ia ia eziñezkoa iruditzen jaku. Ezpatak goian dagoz eta gizonen arrokeria zulunik. Ille batzuk dira, «konponketarako berandu» dala irakurri eta entzu: genduala.

X

EUNEN AGIRIA.—Aurtengo bagillaren 14'an, eun idazle ta Euskal-erakunde izenpetuta, euren artean sei euskaltzain osok, agiri bat eroan jakon Euskaltzaindiari. Bere idazpurua: **EUSKEREAREN GAURKO EGOERA DALA TA, AGERPENA.**

Gero, bagil beratan, 20'garren egunean, agiri ori izparlariari agertu jaken, orrelarako Donostia'n egin genduan izparlari-alkarrikelan eta izparringi gienak emon eben agiri orren barria.

Orri onetan irakurri daike agiri ori.

*

KARDABERAZ'TARREN ERITXIA.—Uztaillaren azken-egunetan eroan genduan Euskaltzaindi'ra beste eritxi-agerpen bal. Kardaberaz'larak dira izenpetzen dabena.

Kardaberaz bazkunak, Lekuona'tar D. Manuel burn dala, laleun inguru bazkide dira, geienak idazle jatorrak eta ugariak.

Eritxi-emate au, Bizkai, Cipizkoa, Araba ta Naparroa'ko lendakariak izenpetzen dabe eta oneixek dira agertzen dituen eritxiak:

- Azkue'k euskera nola bateratu lortzeko, bidea erakutsi zigula. Orregatik, h'rik gabeko gipizkoera osotua danok onartu bear dugula.
- Ikastolai buruz, lurralde bakoitzean bertako euskera erabilli bear dala, E. C. B.'ko ik askelarako.
- Ortik gorako ikasketa-mailletan, gipuzkoera osotua erabilli nai ez dutenak, beste edozein euskera erabilli dezaketela.
- Ortografiari buruz, euskera osotu orrek euskaldunik geienak darabilkilela artu bear dugula.

«EUSKERAZALEEN» ERITXIA. — EUSKERAZALEAK deritxon taldea zabala da. Bilbo'n ba daukaz 2.000 bazkide inguru. Gipuzkoa'n eta Araba'n be gogotsu diardue lanean.

Oneik be euren eritxi-agerteea egin dabe, gitxi gorabera bide orretatik. jarraituz.

*

GIRO BEROA.—Ba dago ba, giro Geroa Bergara'ko batzar oreri begira eta euskaldun asko urduri dagoz an zer jazoko ele dan.

Gu'e aldetik, ezin ukatu, ez dago itxaropen geiegirik, lengotan jarraituko ete dogun da gure susmoa. Baiña ori ez leiteke euskerearen onerako izango.

Ez ela da izango Bergara benetako «besarkada»-lekua? Ez ele gara eskubide bardiñak doguzala, mai baten inguruan jarriko euskaldunak? Jaunlxokeria izango eta da an be nagusi? A la antxiñako «Berga'ko Besarkadea»ren antzekoren bat egingo ele da orain be.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKERAREN GAURKO EGOERA DALA-TA AGERPENA

Euskera idatziaren inguruan indartsu dabillen nastearen aurrean —gure izkuntza indartu ta sendotzea eragozten duan nastea da-ta— agerpen au izenpetzen dugun elkarte ta jaun-andreok geure buruak bearturik ikusten ditugu, ondorengo argibide auek emateko:

1'go: Euskera idatziaren batasuna bere joanean edo ekintzan beintzat lorturik zegoan 1936'gn urtea baiña len, gure Euskaltzaindiaren langintza sakon eta burutsuari esker, euskal-idazlerik geienak jarraitzen ziotelarik.

2'gn: Ori orrela izanik ere, Euskaltzaindiak 1968'go urrillan argibide au eman zuan: «Begi onez ikusiko lukeala H bi bokal berdina nahiz ezberdinen artean erabiltzen astea».

Euskeraz itzegiten duten arteko eunetik 85 euskaldunentzat alperrrikako dan izki bat erabiltzearen alde Euskaltzaindiari eragin zioten arrazoiak igertzea ez da erreza, ezta alde baterako saiakeratzat ba'litz ere, aurrez lortua zegoan idazkera-batasunaren etenari edo apurketari asiera emanaz.

Ortaz gafiñera larriagotu egin da giroa, H erabiltzen asi ziran aiek eta beren jarraitzaileak —arri-garriro bat egiñik asi ere— aldi berean LL ta N guztiak kentzen asi diranean, ortarako aolku («oficialik») gabe ta euskaldunak geiegeienek, baita Ipar-aldeko askok ere, erabiltzen dituzten ots edo «fonema» biziak diralarik ere. Eta ortarako ere ez dute izkuntza-arrazoi sakonik eman.

3'gn: Ori guztia oraindik ere ulergaitzago gertatzen da, orain-aldiko izkuntzalaririk geientsuen jarrera burutsua ezagutu ondoren: bakoitzak beren izkuntzaren idazkera erraztera jotzen baidute, alperrekoak kenduaz, erraztasunaren eta argitasunaren billa jokatzuz beti. Gaztel-izkuntzan bertan ere, adibidez, ba-dira zenbait joera ta eskabide, H ta V kentzearen alde; G ta J, C ta Z, K ta Q, e.a. erraztu ta bereiztearen alde.

Euskerak lorturik zuan urrezko izkuntza-lege dana: «ots bakoitzari bere izkia» edo «un grafema para cada fonema». Beste izkuntza zenbaitek lortu nai lutekena, guk lortutik euki-ta, gure idazkera arrazoizko ta erabilerrazaren kaltean, nolaz ote daiteke gure artean zailtasunak eta illuntasunak jarri nai izatea?

4'gn: Euskera idatziari LL ta ñ kentzea, eta H sartzea, Erriak itzegiten duan euskera biziaren aurkako jokabidea dala ikusten dugu eta, aldi berean, bearrik gabeko zailtasunak ezartzea dala, gure izkuntza ikasteari erraztasunik eta laguntzarik ematen ez diona.

5'gn: Euskera idatzi bateratzea mesedegarri dala, ta geiago oraindik, bearrezkoa dala ere aitortzen dugu, agerpen au izenpetzen dugun guztiok eta bakoitzak; baiña diktadura aldiaren izan ez ditugun demokrazi, askatasun ta baretasunaren giroan egin bearrezkoa dala uste dugu. Baterapen ortara iristeko ordea, bakoitzak bere inguruko euskalki biziak ikasi ta sakontzea da lenengo, gure iritziz, eta gero beste euskalkiak ezagutzen saiatzea. Eta alde berean, euskera landu ta indartzeko eginkizuna beren gain arturik duten aibeste elkarte ezagunek ere (Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Begiraleak, Araba-Bizkai ta Gipuzkoa'ko Euskerazaleak, Liturji-itzultzaile taldea, Kardaberaz bazkuna, Erri-bide, Euskera lagunak, Bilbo'ko Escuela Oficial de Idiomas...) guztiak elkartasun-giroan jo dezatela bate-rapenerako bideak eta eskeintzak egitera, erriaren izkuntza bizitik sortzen diran bideak aintzat artuz, beraren erak eta legeak baztertu gabe.

6'gn: Azaldutako guztiagatik, agerpen au izenpetzen dugun alkarte ta lagunok eskabide au egi ten diogu Euskaltzaindiari: zoziologia ta egiazko euskal-egoera oiñarriztat arturik, ber-aztertu ditzala 1968'an Arantzazu'ko batzarrean emandako aolkuak, eta jo dezala berriz ere Euskaltzaindiak 1936'gn urtea baiña len bere ekintzaz lorturik zuan eta oraindik indargabetua ez dan batasunera, bera bai-da biderik burutsuena, arrazoizkoena ta errazena.

«ITXAS-ALDE» BAKIO'KO EUSKAL KULTUR TALDEA

ASIERA GATXA.—Orain direla urte batzuk, kultura-aldetik zegoen utsune bat betetzeko, dantza-talde jator bat sortu zan Bakio'n.

Bere izena «ITXAS-ALDE» zan, guda aldian izan zan batalloi baten oroimenez.

Benetan izen berezia zala gaurko gudari barri batzuentzat.

Talde onen asierak gogorak izan ziran, talde guztienak legez, baiña eskerrak elizearen, eta batez be abadeen, laguntzari aurrera jarraitu eban.

Eliz-azpian sortu zan talde bat zala esan leike.

* * *

ANTZERKIETARA. Baña urteak joan eta urteak etorri, dantza egitea bakarrik naikoa ez zala ikusi eban, dantzak egiteak berak bakarrik ez eban betetzen euskal kulturearen bear-izana.

Orduan zeozer geiagotan Ian egiten asi bear zala asmatu eban.



Arenaza'tar Josu, Labayen'en «Eguen zuri» antzerki lana gertatzen asi zan.

Beste alde batetik Idigoras'tar Jon abade jaunak alako abesbatz egitea asmatu eban.

Apurka-apurka gauzeak itxura bat artzen eban.

* * *

AGERPENEA.—Azkenean aurtengo Jorraitlean 30'an, Bakio'ko batzokiaren zabalkundea zala ta

ITXAS-ALDE'k kalera urten eban Euskal Kultur talde legez.

Aurkezpena egin ondoren jendea poz-pozik geratu zan, antzerki lana zala ta.

Zenbat barre egin be!

Abesbatza, naiz eta gizon gitxi euki, ondo lortua ikusten zan.

Zer esan soiñu jotzaleai buruz?, a bai zala trebetasuna soiñua joten!

Dantzak be ikusten ziran ondo landuak zirela.

* * *

UMEAK ABESLARI. Beste alde batetik be, euki genduan alako abesbatz bat, baiña au ume txikiak osoturik.

Oneik Bakio'ko Ikastolako umeak ziran, euren zuzendaria Uriarte'tar Miren Josebe zala esan bear.

Sakon sartu ziran mutiko onen abestiak jendearen biotzean!

* * *

LAN BARRIAK.—Orain Kultur-taldea aurrea doa. Kultur-arloan egiten dan lana ez cia amaitzen, eta naiz eta lan asko egin sekula ez cia izango naikoa.

Ba dagoz indar eta asmo barriak.

Laster asiko dira antzerki-lan barri bat gertatzen, abesbatza be aurrera doa abesti barriakaz, dantza taldea bardin.

Iker-lana egiteko asmoa be ba dago, eta apur bat Bakio'ko kondairaren barruan sartzeko.

* * *

JENTE BARRIA.—Gaiñera jende berria sartzten dagoan lez, onek beste gauza bat dakar beragaz: Arlo barrietan lan egin leitekela.

Irakasle barrien bear-izana konpontzen da apurka-apurka, ezin leiteke aitzu atzo umeak ziranak gaur gizonak dirala, eta atzo ikasleak ziranak gaur irakasleak. Ezin leiteke aitzu atzo umeak ziranak gaur gizonak dirala, eta atzo ikasleak ziranak gaur irakasleak izan leitekezala, eta izan bear dirala.

BARATZE MIXIOLARIA

ERRONKARI'N IRUDIA.—Erronkari'ko Isaba'n, elizako koruan, aretzez landutako irudi eder bat daukazu, irakurle. Eliz-gizon bat ageri da, bertan, belauniko; eta inditar bi aren inguruan, aizkorak eskuetan gora.

Jesus-lagundiko Baratze'tar Zipriano da irudiko elizgizona. Isaba'ko semea. Bolibia'ko baso baltzetan, orain lareun urte, jaunagaitik odol-eriotza jasan ebana.

Lurralde zabalak ditu Bolibia'k, sorkalderuntz. Zabalak eta lauak. Ibai aundi ta baso baltzez jantziak. «Mojoak» izeneko basatiak bizi dira an; eta aita Baratze izan zan bertora sartu zan Europa'ko -lenengo gizona.

* *

BENI-ALDEAN.—«Mojo» inditar orreetako bat eroian laguntzaille. Beronegandik izan ebazan ango gauzen eta izkuntzaren barria. Lau urtez ibilli zan batera ta bestera, ango ibai luzeetan zear. Eta Portugal aiñako lurralde luze-zabala ikertu eban. «Beni» dau bere izen, lurralde orrek.

Eiza ta arrainketa ziren basatien bizibide bakarrik. Eta eiza ta arrainketa ibilli zan mixiolaria be, lau urte areetan, bertako inditarren lagun. Giro kaltekorra zan ango giroa. Kaimenez beterik egozan ango ibaiak; pizti txarrez josiak baso baltzak.

INDITARRAK GIZABIDETZEN.—Eta au otu jakon aita Baratze'ri: inditarrak erritxuetan batzea. Leku egoki ta babesak aukeratu ebazan, bai; baiña, ezetz esan eutsoen inditarrak. Auxe zan euren zera guzia: ez zirala alkar konpantzen.

Orduan, aita Baratze'k, gizon onarenak egiñaz, euren arteko auzi ta asarreak konpondu, ta alkarre-razo ebazan, noizbait. Beste auzi bat sortu zan, baiña, gerora: ez zegoala sortubarritako erri-inguruetan, ainbat bizilagunentzako bear zan beste arrain eta eizabiderik.

Zer egin?

Bolibia'ko goi lurraldetara abiatu zan aita Baratze, abere ta azi barrien billa. Berreun buru batu ebazan abelgorritan bakarrik. Eta eurekaz itzuli zan Beni'ko lurraldera; ibaiez ezin, eta basoz-baso, ziur!

Illabete bi emon ebazan bere 400 kilometruko ibillaldi luzean; eta doi-doi iritxi zan bereengana, dana apurtuta, ta ainbat abere bidean galduta.

* *

INDITARRAK JENDATZEN.—Eta nekazari ta abeltzain bihurtuz joan zan, apurka-apurka, lengo eiztari basatiak. Baita arotz eta errementari ere. Ez jakon

beste au, bat ere, xamurragoa izan. Gaiak eta tresnak falta, orra! Eta Lima'raiño joan bear orreen billa.

Berrogei egunetako bidea egoan, andik Lima'ra. Luzeegia, ainbeste joan-etorritarako. «Inka» deitutako lengo inditarrak etorri jakozan, orduan, burura. Lengo Inkatarrek eta areek egindako arrikaltzada sonatuak.

Eta arrikaltzada orreen billa abiatu zan. Iru urte luzetan ibilli zan, andik-ona; eta utsik etorri zan, irutan. Laugarrenez be urten; urte osoa igaro, ta ez zan iñundik-iñora agiri. Itzat emon eben bere inditar lagunak. Eta ona, nun agertzen dan, noizbait, dana ondatuta; dana ondatuta, baiña irribarrea eriola.

Aurkitu eban, azkenik, bere amasetako kaltzada zarra; eta berrogeitik amabost egunetara laburtzen eban bide zabal eta eroso.

* *

INDITARRAK KRISTAUBIDETZEN.—Lengoetako erri txikiak, laister biurtu ziran erri aundi. Ba-eukien arotz, errementari ta eiotegirik. Ezin baiña, ainbat tresna, garau ta abere batetik bestera eroan-ekarri; eta Erronkal'en diran «almadi» famatu areen antze-poak egin ebazan aita Baratze'k Beni'ko ibai zabal areetarako.

Ba-eukien eskola ta elizarik. Irakurri ta idatziz gaiñera, ogibide ta dantza barriak be erakutsi eutsezan. Eta berak laguntzen eutsen, bere txistuaz, dantza barri orreetan.

Beste iñungo gauzetan baiño arreta geiago ipiñi eban eliz-gauzetan. Kristau-ikasbide barri bat egin eutsen berak; inditar izkuntza berean eta euren erara moldatua. Baita eliz-kanta barriak sortu be. Sortu, ez; inditarren doiñuak ziran, baiña mixiolariak jarritako bertso barriaz jantziak.

ZELAN ERIOTZARA?—Kristau barri ziran, andik Dgei urtera, bertoko inditar geienak. Ia danak kristaututa, zelan erail eben, bada, euren maixu ta aita ,n a? Ez eben eurek oiñazetu ta erail. Auzoko, Brasil'en mugako beste inditar basatiak erail eben Baratze mixiolaria.

Irurogei urte beteak zituan, orduko; eta araiño abiatu zan, ango basatiak jendatu ta kristautzeko asmotan. Oker jo eutson kukuak, baiña 1 Kukuak oker, baiña Jainkoak ondo. Zeruko sari ederra emon eutson Jaunak bere morroi zintzoari.

Atseginetan dagoz, arrezkero, Beni'ko jenteak eta [saba'ko erritarrak. Eta bitzuen elizetan jaso dautsoe mixiolari aipatuari gimutagarri eder eta maitegarri-rririk.

PANAMA



Panama, txikia b

Aurten ibillaldi luzea egiteko erea izan dot.

Nire oporrak ibili ta ibili, ikusi ta ikusi izaten dira beti, baiña aurtengo lako ibillaldi luzea egiteko erarik ez dot inoz izan. Astirik be ez eta dirurik be ez. Eskerrak fire ama onak txakur batzuk emon eustazana bere agur-orduan...

Nire amesik biziena, atlantik-itxasoko uren andiko-aldea ikuste izan da beti eta aurten ames ori bete da.

Bagillaren 4'an izan zan. Sondika'ko egazkin-zelaira eldu nintzan arratsaldeko lauretan. Ez jatan ango giroa atsegin izan. Berebil asko non itzirik ez... Azkenean an egoan zaintzaille batek izendatu eustan tokia eta an itzi neban berebilla 16 egunerako. Ia 400 pezeta ordaindu bear izan neban.

* * *

Eta egazkiñean Madrid'era. Orain-artean be sarritan ibillia naz egazkiñean eta ez nintzan bildurtu.

Madriden ordu asko itxaron bear izan neban. Panama'rako egazkiñak goizeko ordu bietan urtengo eban. Laterri-arteko zelaldera joan nintzan eta itxaron. Aparia be Iberia'ren kontura jan neban bertan.

* * *

Urteteko ordua baiño ordu bat lenago asi ziran poliziak gu ta gure fardelak aztertzen: Eta zelako azterpena!

Fardela burdin-zulo batetik igaro eben eta gero eskuz arakatu, eta an ez egoan nire soiñekoak eta irrati txiki bat baiño.

Eta neuk be ate baten azpitik igaro bear izan neban. Beste aldean zaintzailleak esan eustan: Ezer burdiñezkorik ba daukazu, itzi egizu emen mai-gaiñean eta barriro igaro zaite atepetik.

Nik ordularia (erlojua) itzi neban eta barriro igaro, baiña esan eustan: Burdiña geiago daukazu eta itzi egizu mai-gaiñean.

Berebillaren giltzak itzi nituan, baiña ez zan naikoa, barriro igaro eta txanponak itzi bear izan nituan, eta orrelan lau edo bost bidar, ezelako burdinki barik geratu arte.

* * *

Ordua eldu zanean, sartu giñean ate batetik eta zelaira urten barik egazkin eder zoragarri baten ikusi genduan geure burua 500 jarleku gitxienez izango ziran egazkin aretan, baiña ez zirar guztiak bete.

Ibiltarien artean, ume asko, ia erdiak, eta lekaide-lekaime aske ikusi nituan.

Bere orduan urten eban gure egazkin ederrak. Ni leio-ondoan niñoiar, baiña gaba zan eta ez neban ikusten errietako argiak baiñ besterik.

Eta gau luzea izan zan a. Amalau ordu inguruko gaba, 900 km egiten genduzan orduko, baiña eguzkiak guk baiño ariñago egir eban eta, azkenez, amalau orduko gaba igaro ondoren, eguna egir eban.

Santo Domingo'n jatsi giñan ordu baterako, baiña egazkin. zelaira eta emen laterri-arteko dendak baiño beste gauza aun. dirik ez egoan.

* * *

Eguna argitu eta laster Panama'ra eldu giñan. An neulcazar itxaroten euskaldun adiskideak, nire oporraldi onetan laguntzaille



Beroa beli, euria neguan, lur aberatsa.

IZADIA

- l'anama'ko ikuspegiak, tropiko-aldekoak, ederrak dira, baiña best crabatekoak.
- Laterriaren zati on bat bat oiara cla: Ibaiez kurutzatua, zugat auncliz betea, kamiño-bakoa, ibai-ertzetan eta goi-alcleatan indioa dirala.
- Gizon zuriak baiño geiago, baltzak eta orio-kolorekoak clira. Zur baltz eta Inelio-zuri nastatuak asko. 1.800.000 biztanle guztiz.
- Gitol jaten clabe bertako gizonak, beroak eragincla edo, eta geie arruza.
- Egunak eta gabak barclinañak dira, 12 ordukoak, eta urte guztia bero egiten dais.
- Lurrak frutu asko emoten dau. Artoak urtean iru edo lau emotald baiNa Ian egiten ez dira zaleak.
- Negua can eta egunero euria egiten iban, odei-zarata ta guzt baiña euri beroa.
- Txina'tar batek matsa eukan eta urte guztian emoten dauala esa euskun.
- Etserik geicnak txikiak clira, baiña ba dagoz bitartetan goio aundiko etxeak be.
- Beroa kentzeko aixekiñak nonnai clagoz: etoc-elan, eleizetan, ge lotan, zinectan... Ortik asmetan cla zaratatsu antza.
- Berebil asko ikusten cla eta bideak ez beti egokiak.



Urbidea, Panama'tarren samin-bidea. USA'tarrak or aberashidea.

URBIDEA

- Panama'ri «Munduaren biotza» esaten dautsoe, «Munduaren zu biatze» bai. Olako zerbaiteu antza emoten dautso alde bateil bestera laterri au igaroten dauan kanal edo urbileak.
- Ipar-Amerika'tarrak egiña da eta eura ataraten dautsoe onurea Milla asko gizon il ziran.
- Oraintxe egin dabe USA'tarrak ituna eta zortzi urte barru eurer kontura izango da urbidea.
- Urbide onetatik joaten dira Atlantik-itxasotik Pazifik'era doazat ontziak, eta asko ordaintzen dabe.
- Iru andapara edo «esclusa» daukoz: Atlantik'etik sartzen dan itxas ontzia bitan goratuten dabe andaparetan eta gero Pazifik'era jats baten.
- Urbide'tik ontziak eroateko, «nula» deritsen tramankuluak egiter dabe indarra, ontzia bera geldidagoala.

Indiarrak, betiko Panama'tarrak, baztertuta.





ere buruaren jabe.

GIZADIA

IKUSGARRIA

INDIARRAK

Indiarrak dira-bertako lenengo ta jator diran biztanleak. Indiarrak, geroago ta geiago baztertuta dagoz eta euren «reserva» edo inork kendu eziniko lurrak eskatzen dabez. T'orrijos'ck urrengo arto-batzerako lurrak eta etxeak eurenak izango dirala esan dautsoe neure aurrean. Sinistu lei? Enda bat baiño geiago dira, eta euren izkuntza bereziak daukez. Alkar ulertzeko gaztelaraz berba egiten dabe. Orretan ba dauke gure antza. Oianctan, ibai-crtzetan eta muño-gaiñeetan bizi dira eta «piragua» dabe komunikabide bakarra. El Real, Palma ta Yabiza dira euren uri nagusiak. Bakoitxak 1.000 biztanle inguru. Komunikabide bakarra, egazkiña. Etxe guztiak zuczkoak, olezkoak, dira eta etxegañca lasloantzekoa. Biotz onekoak dira eta Zuluaga'tar Dionisio mixiolaria lagun nebala egin gcuntsoczan ikustaldi batzuk, Pinugana, Yape ta Union'era, eta oso ondo artu ginduezan. Euren etxe baten bazkaldu genduan, baiña baItzen auzoa zan. Antziña esklabu (jopu) izan eta basora iges egien ondorengoak.



leizea, Panama'ren aurrerapenean lagun: orra or antxiñako katedrala.

LEIZEIA

Gicnacn, ia guztiak, krisliñauak dira, bateatuak beintzat. Erri-erlejiñoa dabe atsegin: bede nkacnacn, cteiz-bideak, eskapularioak... Katecumcnoak eta karismatikoak be ha dauke indarra. Goi-gotzaiña, jatorrikz Ipar-Ames ika'tarra da eta gotzaiñak atz-rritarrak. Euskaldunak be bai: Colon-Darien en Koreilla'koa ta Zeanu'i'koa. Bocas de Toro'n len izana naparra... An izan giñan egunetan, auteskundera zala ta, agiria argitaratu eben gotzaiñak: Ausarta ta sakona, ederra benetan. Arazo batzuk agertzea ez jakon atsegin izan Torrijos'eri eta bcrbaldi baten esan eban: Xomo pueden pensar que sea atco el hijo de Joaquina y José María Torrijos que pasaron 40 años dando alfabetizaci(in y Evangelio a los panamcños? Karmcn'go Amaren egunean eleiz-bide ederra egin eben eta eguerdian a II izan zan nuntzio jauna be gugaz. Erri-crijeño ori ebanjelloak eskatzen dauan zintzotasunaz ez dabe ondo alkartzcn eta argi berba egiten dauan izlariari entzun ez kero «El padre se ha puesto bravo» esaten dabe.



skatasunaren enparantz: A skatasuna Gai, Gaiña demokrazia?

POLITIKA-ARAZO

Ego-Amerika'ko laterri askotan lea, cinch' bc gudalariak (bra egintari. Omar Torrijos'ek amar urte daroaz agintzen eta «Guardia Nacional» ekoa da. Auteskunderako zabalkundera egiten diarduen •baiña autscunde onetan cz da sartzen Omar Torrijos'en aginte-mailla, España'koetan crrcgearena sa'tzen cz dan lea. Autatuak, lcgcgintzarako eta talde edo «eauara» bakarra dira. Torrijos'ck bere lekua beste zortzi urte barru auteskundera aukatua izango dala diño, baiña here arerioak «Zergaitik cz orain?» diñotsoe. Berbaldi baten, Karmen'go Ama'ren egunean bere arerioai hegira Torrijos'ek esana: Reeen una manfca a la Virgen por ellos: son almas que andan pensando. Diktadu'a ta Demokrazia naslalu gura ditu ba, T'orrijos'ek, Egoamerika'n beste askok lea, eta egintcko era oneri DEMOKRADURA esaten dautsoe. Lurralde aberatsa izanik, aberastasanak gitxi batzun sakcletara doaz. Ori be toki askotan jazoten dana.

izango ziranak: Zuluaga gotzaiña ta bere anaia, Larrazabal'dar Telesforo Zeanuri'tar ospetsua, Batiz'tar Nikolas «Salokin» izenagaz ainbeste euskeraz idatzi dauan olerkari ospetsua...

X

Pozik aundianaz alkar agurtu ondoren, Larrazabaldar Telesforo'k artu ninduan bere lekaide-etxean ostatuz. Ostatu ona benetan, eta Telesforo anai arduratu baten antzeko laguna izan neban. An eta emen eskerrik asko esanaz ordaintzen dot amabi eguneko ostatu ta ango laguntze-alegiñak.

Lenengo eguna, ostereak izten dauan nekea kentzeko, atsedeneguna izan zan.

Laster ezagutu nituan an ziran beste euskaldun batzuk be, Goikoetxea'tar Agustin, Serafin aita, Martin aita...

Urrengo egunetan, Telesforo'gaz batzutan, Zuluaga anaiakaz beste batzutan, urteera asko ta ederrak egin genduzan: Urbidea ikustera, Colon urira, piztian erakusketara Darien'ko mixio-tokira, Panama zarra ikustera ta abar.

Zinera be Joan nintzan, egun baten Panama'n eta beste baten Caracas'en. Zineetan izaten dan zaratea eta bean izaten dan loieriaz arritu nintzan. Orretan gu baiño atzeratuagoak dira.

Uztaillaren 16'garren egunean Caracas'era. Zeluaga Gotzaiñak eta Telesforo aitak lagundu eusten egazkin-zelaira.

Tucumen egazkin zelaian, Panama'n, agur egin neutsen.

Ez jat aitzuten txapelgorridun neska baltz batek zelako garraziak egin zituan, egazkiña galdu ebalako, bere burua lurrera botata!... Caracas'en iru egun egin nituan eta ara orduko geldid-aldi laburrak Cartagena'n eta Maracaibo'n.

Gero Canarias'era joatea nai izan neban, baiña ez egoan egazkin egokirik eta zuzen Madrid'erako txartela artu neban.

M

Caracas'en lenengo Eusko-Etxera joan nintzan, baiña itxita egoan, gaba zalako. Urrengo goizean barriro joan nintzan eta ondo artu ninduen. Meñaka'rra egoan edatetxean eta aurrean Mendata'ko gizon eldu bat. Etxea ederra da.

Candelaria deritxon auzora joan nintzan Caracas'en eta Bermio'tar bat aurkitu neban an edatetzeko jabe eta Bermio'ko gazte bat, Rekalde'tar Josu. Adiskide egin giñan, jakiña. Atsegin izaten jaku urriñean alkar ikustea euskaldunoi.

Y

Caracas'etik Madrid'era gaba laburra izan zan, bost bat ordukoa.

Madrid'en elduz batera artu neban Bilbo'rako egazkiña. Txikia eritxi neuntzan.

Sondika'ra eldu nintzanean, an egoan nire berebilla autsez beterik, baiña laster ipiñi neban ibiltzen eta pozez beterik amaitu neban nire ostera ederra, barriro geure Zeanuri'n neure burua ikusi nebanean.

Ostera gogoangarria eta gizadia ezagutzeko egokia.

GAMIZ

SORGIÑAK

SORGIN-KUME BAT ZELAN SORGIN BENE-TAKOA EGITEN DAN.—Lau juez edo epailleen aurrean, 1.610 urtean, sorgin batek kontau eban argi ta garbi pertsona bat zelan sorgin egiten zan. Emen bere berbak ipiñiko dautzuedaz.

* * *

SORGIN-AMA ETA SORGIN-KUMEA.—«Sorgin izan gura dauan sorgin-kume batek, Sorgin-ama batengana joan bear dau, eta onek lapikotxo batean daukan unkontuz, eskuak, bularrak, burua eta oiñak bustiko deutzoz eta biak egaz Akelarrera joango dira, arin eta pozik.

* * *

AKELARREKO DEABRUA. — Akelarren beste sorgiñak batzarrean egongo dira, Aker Baltza —Deabrua— erdian dagoelarik.

Deabrua, aker baltzen itxuran, aulki baten jarrita egoten da, buruan adar txikiz egindako koroi bat dauala.

Alako adar bi ez dira txikiak, akerraren antzeko adar oker luzeak baiño.

Adar luze oneik puntetan argi bana dauke, eta argi oneik Akelarre guztia argitzen dabe.

Argi ori illargiarena baiño argiakoa da, baiña eguzkiarena baiño illunagoa.

Akerrak begiak borobillak ditu, andiak eta suzkoak. Bizarra auntzaren antzekoa. Gorputz erdia akerrarena eta beste erdia gizonaren antzekoa.

* * *

AKERRAREN AURREAN. — Sorgin-amak bere sorgin kumea akerraren aurrera eroan eta esaten deutso: «Jauna, emen dakart zuretzat sorgin-kume au». Akerra orduan sermoi luze bat esaten asten da.

Akerraren abotsa garratza eta astoaren arrantzaren antzekoa da, baiña arrokeriz betea.

Akerrak beti umore txarreko arpegia erakusten dau.

* * *

AKERRAREN SERMOIA. — Akerrak orduan sorgin-kumeari esaten deutso.

Nire ikasle eta jarraitzale ona izan gura badozu, leenengo eta bein betiko Jaungoikoa eta. Andra Maria eta Zeruko Santu guztiak ukatu, ernegatu egin bear dituzu. Neu bakarrik naz zure Jaun eta Jaungoikoa.

Neu bakarraik adoratu, gurtu bear nauzu.

Au egiten badozu zerua baiño gauza ederragoak emongo dautzudaz: gorputzeko atsegiñak eta gura dituzun gusto guztiak.

* * *

AKERRA GURTUTZEA.—Sorgin-kumeak akerrak esandako gauza guztiak egiten dituenan, akerrak eskerreko anka luzatu eta sorgin-kumeari gorputzean marka bat egiten deutso.

Marka au bizitza guztian ezin kendu daiteke.

Gero Akerrak sapo bat, jantsi ederrez jantzita, emoten deutso sorgin-kumeari, esanaz: «Au izango da emendik aurrera zure aingeru guardakoa».

* * *

AKELARREKO JAIK. — Gero txistu eta danbolin soñuan sorgin guztiak jai egiten dabe su andi baten inguruan bira-biraka.

Gau osoa saltoka eta irrintzika emoten dabe sorgin barriaren omenez.

Aker Baltza bien bitartean begira egoten da, barreka eta siñu txarrak egiten, lotsagarriko eran)).

GOIKOETXEA TAR IÑAKIK

MARGOLARIAREN EMAYA

*Geure lurra maite dau margolariak
Lauki bat emon daust: itxaso aserrek
Bitzaz betetzen dauz Galea'ko atxak
Maldatik igon gure, baiña jausi.*

*So egin dot luzaro: Ondar zabala
Neguan agertzen da lagun gabe.
Batel ondaturiko olak, burdiñak,
Ezker aldeko ondarra, betetzen dabe.*

* * *

*Zer esan gure daust margolariak?
Laukiak ete-dau gomutarazo-barri?*

*Gu bere, ludi onetan, urte askotan,
Guda gogorra izanda, batelen antzez,
Itxaso ertzara ekarri azur makurrak
Ildegira begira. Gero arte...*

* * *

*Au da ikuspen ituna? Ez orixe.
Aitagana juatia. Ezpetxea ausi!
Zeru ertzeko kayan inguratuta
Ziñezmendunak bizi alai ta azke.*

UTARSUS

BERTSOLARIEN LENENGO BARRIAK

(Zamakola Arratiarrak)

BARRI GITXL—Bertsolaritza ez da Euskalerrian atzo goizekoa.

Bertsokak bapatera atera eta elkarri kantuz botateko oiturea eta orretarako erreztasuna euskaldunen artean oso antxiñakoa, ia euskerea bera baizen zarra da nonbait. Gaur, alan dalakoan gagoz. Baiña, arritzekoa bada bere, bertsolarien aitamenik ez dogu entzun edo ez dogu irakurri, naiko oraintsurarte, XIXgarren gizaldian sartu arte.

Baziran, bai, azterren batzuk, lorratz batzuk, baiña gauza argi eta garbirik ez.

*

EROSTARIAK.—Antxiña bateko Aitor zalakoaren kontuak buru beroen batek asmautzat euki arren here, or daukaguz ez ain antxiña-antxiñako andra batzuen izenak, andra erostari edo illetariak. Illeta baten inguruan bapatean asmauta, sekulako eresiak, sekulako bertsokak itxi euskuezan, agoz ago errian zabaldu eta gero liburuetan jasota eldu jakuzanak.

Y ¶

LEGEDIETAN.—Lege batzuetan bere bada aztarren-txoren bat edo beste. Inñoren lotsagarrizko bertsorik zabal-tzea galazota egoan. Au, orraitio, beste leku askotan jazoda eta oitura ori, auzoan zeozer jazo dala-ta bertsokak aterate, ez da bertsolaritza garbi-garbia. Bertsolari ez danak here, ixilpean burua gordeta, egin leiken gauzea da.

IZTUETA.—Bertsolaritzaren ezaupidea, benetako bertsolarien barri zabaltzea, XIXgarren gizalditik onakoa da, erromantikoen egunetakoa.

Aspaldi baten Etxeparek euskereari bota eutsan oivaren antzekoa botaten deutse gizon barri batzuk bertsolaritzari: ator plazera, agertu adi mundura.

Gizon onein artean bat ikus ten dogu geien izentauta: J. Inñazio Iztueta, giputza, dantza-maisu eta idazle izen andikoa. Au izan ei zan bertsolariak lenengoz aitatu zituen, bertsolaritza illunpetik atera ebana.

Alan bere, Iztuetari ezer kendu barik, ez daigun aiztu badaukela giputz onek Bizkaian aurrelari bat: J. Antonio Zamakola, arratiarra, Dimako semea, beste Zamakola ospetsu baten anaia.

* *

IRU ZAMAKOLA.—Askok ez dabe ezagutzen Zamakola bat baiño: Simon Bernardo, Bilbo aldeko gorabera ta zarraparra batzukaitik oso entzuna egin zana.

Beste bi here bedira, etc bear bada, munduan zear Simon Bernardok baiño izen andiagoa dauke.

Bata abadea izan zan eta Amerikan, Perun, Arequipedealdean izen andia itxi dau, an egin eta eragin zituen erriarentzako lanakaitik, eta idatzi zituen liburu batzukaitik.

Bestea lege-gizona eta eskribaua izan zan Madrillen. Ezaguna berau, ez lege-gizon lez bakarrik, bai erri-soñu, erri-dantza eta erri-bertso zale lez bere.

Ortik etorri jakon ospea mundu guztian zabaldu da. Batez here, musikalarieen artean.

Euskaldunontzat *Historia de las Naciones Bascas* idatzi eban, iru tomotan.

Ain zuzen, liburu onetan dator bertsolarien eta bertsolaritzaren aitamena, Iztuena-rena baiño urteak lenagokoa. Eta ez aitamen utsa eta otza, beroa eta goramenezkoa baiño.

* fi *

DURANGOKO ZIDARGILLEAK.—Zamakola oni zor deutsagu Durangoko anai ospetsuon lenengo berri emotea here.

Anai bi ziran: Joan Kruz eta Antonio, soiñularia eta bersolaria bata, eta bestea, dantzaria.

Euren arreba bat lagun ebela, irurek ibilten ei ziran erririk erri, bai Bizkaian eta bai inguruko erri askotan, errietako jai-egunak alaitzen.

Bear bada, oindiño ez gagoz emen benetako bertsolari-giro baten.

Juan Kruz orrek bere biziko gatza eta piperra ei eukan bertsogintzarako, baiña bapateko bertsorik botaten ekianik ez dakigu. Zamakolak ez deusku or argi andirik emoten.

* *

BENETAKO BERTSOLARITZA.—Benetako bertsolaritza, otoz otoan bertsoak asmau eta bertsolariak bertsolariazgatz bata besteari erantzunez kantari ekitekoa, bi edo iru alderditik erakusten deusku arratian onek.

ELERTIA

Lenengo ta bein, Euskalerriko gauza nabarmen arrigarrizat dauke.

Arrigarrizat dauka eskolarik bape bako gazteak bertotan ain ederto egitea.

Idazten edo irakurten ez dakienak izan arren, baserriputillok gauza dira gau osoan bertsozko kantuz isildu barik ekiteko.

Eta zelango gaztez eta zelango zorrotzasunaz, gero!

Jakitunenak bere arriturik isteko moduan.

Ikusgarria izaten ei da euren artean zeingeiagoka biziak ipinten ikustea, ia zeinek obeto eta luzaroago ekin, emondako gai baten aritik urten barik, bertsoak asmetan, gelditzeko astirik ez daukela.

% s:

ERREZTASUNA.—Zamakolak uste dau euskaldunari bertsoarako erreztasun au euskereak berak emoten deutsal.

Euskerea berez ei da esanguratsua gozoa, soiñua aberatsa, eta orregaitik ei da beste izkuntza asko baiño egokiagoa bertsozintzarako.

Bertsotan ekiteko ereak edozein ordutan, edozein egunetan sortu daitekez. Ez bakarrik jaietan, bai lanerako ordutan bere.

Zamakolak bere senide baten etxean entzun ei eban bertso-saiorik zoragarrienetako bat. Eta ondo barruan gelditu jakon gogoan.

ARTAZURIKETAN.—Auzoko lagunak etorri jakez artazuriketan laguntzeko. Eta or berotu clira gazte bi, ia zeinek bertso obeak bota.

Gaia: an artazuriketan batuta dagozanen alderdi onak eta txarrak edo ez ain onak.

Gazte batak alde batera eta besteak bestera.

Batak asi eta besteak jarraitu.

Zamakola ez tigan dago entzuten eta laster agindu deustoz entzule bati lurra eta papery ekarri eta dana paperera aldatzeko.

Ordu bitik gorako ekitaldia izan da gazte biena.

A eizan gatza eta zorrotzasuna! A entzuleen barre gozatsu egitea! Ez ei zan entzun, bear ez zan eztenkada gogorrik eta iñor minduta gelditzeko ezer, gaiñera.

ETORRI-BARRIARI.—Bertsotarako era ona izaten ei ban auzotarren bat, urte luzeetan erbestean bizi ta gero, ..tzera etorten zanean bere.

Bizkaitarren artean, orduan, oiturea ei zan auzoko guziak jai egitea.

Etorribarriari ondo etorririk biotzetikoena egin bear ei akon. Guziak joango ei ziran lagun zarrari besarkada esua emoten.

Eta, gero, jaia, tuntun, txistu, alboka ta guzi.

Eta an izango ei ziran bertsolariak bertso-kantari, entzule; uztien atsegingarri.

* *

AGATE DEUNA.—Urte barruan berarizko bertso-eguna izaten ei zan Santa Ageda bezpera.

Egun ori ez zan, antza, gaurko egunetan bazterrik geietetan egiten dan lez, ospatzen, buruz ikasitako bertsoak aabilliz. Egun orretan batzen ziran arrautza, lukainka eta ;aiñerako eskupekoak bertso ederren sari izan bear eben.

Eta or zan gazteen alkarren leian ibiltea, zeinak bertso-ik ederrenak asmauko euren neskatillentzat. Olantxe irajazi bear zan onein biotza eta on-eretxia.

Orretarako bertsoak atera bearra, edo beste bertsolarien jaien laguntasuna.

Ez zan dana Santa Agedaren omenerako.

IZTUETA BAIÑO LENAGO.—Zamakolak emondako igitasunok (amaitzeko esan daigun) 1818garren urteen aritara emondako liburu batekoak dira, gitxienez Iztuetaren iburua baiño sei urte lenagokoak; eta berak ikusitzat emoen dituen barriak bera Madrillera aldatu baiño lenego a. zorikoak dirala dirudi, ogetabosten bat urte lenagokoak.

Zamakolak ez deusku bertso-apustu andirik aitatu; ez icusku bertso-ik emon; baiña bertsolariaren muiña ez leusku txarto azaldu.

Ia errikoia, etxeoago eta barrukoago aurketzu deustoz: ula esango neuke, zeingeiagoka utsa baiño geiago auzo: oen arteko oitura maitagarria.

Erdel-litaraturan erri-bertsoai euren garrantzia emoen jakin ebanak euskal-bertsolarien balioa ikusten eta neurzen ez eban txarto jakin. Iñok ez dagiola autormen au ikatu.

Gure bertsolariaren lenengo barri-emoillea eta gorazaillea J. Antonio Zamakola (edo Iza Zamakola) da, Biz: aiko semea, arratiarra, Diman jaioa.

IRITXIZKO BERTSO BARRIAK

1

Gure Aberri Ama Euzkadi'k
ez dauko iñon bardinik,
beren sendian ez dago iñor
ezer an ez dakianik;
orrexegaitik euzkotar danok
Bera itun ikusirik,
gertuz on bear Bera jagoten
galdu ez dagian bizirik.

2

Alderdi larrei sortzeagaitik
gabilz nik uste nasturik,
bijen bitartin Euzkal-Erria
dago begiak bustirik;
Batasuna oiñ lortzen ez bada
danok gogoz ausnarturik,
alperrik izan legike gero
eitea LAN damuturik.

3

Suzko beraunez eta lerkaiaz
zertzuk eingo dira lortu,
ilketak eta zaurituk sendo
ziur ziur erreik sortu;
oita-amaseiko guda, zitalaz
bear gara gogoratu,
danok ein daigun Batasun on bat
Euzkadi deiten Azkatu.

4

Alderdi edo «Partidu» batek
gure ez badau Alkartu,
esan legike lagun askotxoz
eiña dagola arrotu;
arrotasunak laguntasuna
eiten dau sarri ukatu,
eta ukatuz ibiliz gero
kaltiek nunbait agertu.

5

Demokratiko Alderdi danak
egon zaitezte batuten,
jakiña dago batasunetik
gagozala indartuten;
indarra dagon leku danetan
jokua dau irabazten,
irabaziaz ondoren gagoz
LEGE ZARRAK be lortuten.

6

Gu euzkaldunok zintzoz ba'gagoz
gure Euzkadi'n aldera,
aztu ez daigun bere Izkuntza
izatez dala EUZKERA;
GURE izkuntzak igoten badau
bere leku GOI MAILLERA,
Euzkal-Erriko biztanle danak
asi leikez ikastera.

7

Arrotzak edo atzerritarrak
sartuaz Euzkal-Erria,
sasoi artatik gure Izkuntza
sartu zan burrukaldira;
Euzkal-Errian arerioak
gaur egun be asko dira,
baiña Euzkera euzkal indarrez
elduko da NAGUSIRA.

8

Gure Izkuntza makal ikusiz
ez gaitezen atzeratu,
ainbeste urtez aginte zitala
egin dauskue pairatu;
Ikastolak oiñ geitxuten dauz da
euretara egin sartu,
euretan sartuz ta ikasiaz
EUZKERA beingoz bizkortu.

9

Auteskudeak Prantzia'kuek
eskoitarrak irabazi,
ipar-aldeko euzkaditarrak
Ikastolak galerazi;
orreik ez dira iñoiz izango
Euzkadi'ren ALDEZLARI,
kontuz emen be askoitarrakaz
nai ba'dogu AZKE bizi.

10

Emen bertsoek IRITXIZKUEK
euzkaldun askorentzako,
euki dagigun buruek ARGÍ
Euzkadiren alderako;
gero alparrik izango bait da
itzak besten aurkarako,
euzkaldun danok zintzoz landu ba
Euzkadi Azkatuteko.

ELEIZEA

VI PAULO'REN GOMUTAPENEZ

AITAREN AGURRA DA BETI AITA SANTUAREN ERIOTZEA ETA MUNDU GUZTIAN IZATEN DAU, ERAGIÑA, ORRELAN IZAN DA VI PAULO'RENA BE

Bai, dolumiñez dago mundua, batez be mundupo katolikuak.

Amabost urte Aita Santu'tzan egin ondoren, Erroma'ko bero aundiak orretara bultzatuta edo, uste aundirik ez genduala jakin genduan egun baten Aita Santuaren eriotzearen barria.

Dagonillaren seigarren eguna zan, Kristo'ren Antz-Aldatzearen eguna. Egun beretan antz-aldatu zen VI Paulo be. Betirako bizi barria jantzi eban, il-eziñen bizia.

MUNDUAREN AURREAN, LATERRI-ARTEAN, GIZON AUNDIEN AURREAN, AUNDI AGERTZEN ZAN VI PAULO ETA ORTIK SORTZEN ZAN MUNDUAREN AURERAPENEAN KRISTO'REN IRAKATSIK SARTZEKO BIDE BAT

Nik ez dakit Kristo'ren ordezkariarentzat egokia dan ain aundi izatea. Ebanjelioa txikien alde agertzen da eta umeen antzeko txikiak izateko eskatzen dausku.

Baiña gaurko Eleiz-Erakundean Aita Santua Gizandien artean gizandi agertzen da. Berak otseñen otsein dala esaten dau, baiña itxura baten iñork ez leuke esango.

Bizitzan eta eriotzan, aundien artean aundi agertu da VI Paulo eta aunditasun orren barruan Eleizearen eta munduaren serbitzaille izan da. Ori ezin ukatu.

Aundia, munduko aundikien artean bake-bidea sortzeko.

Aundia, Afrika'n naiz Amerikan, naiz Asia'n, naiz *Europa zarrean bere* ikustaldiak egitera joan danean.

Aundia non nai izen ona ta ospea izan ditualako.

Aundia, urrutikuskiñean, irratietan, liburuetan, izparringietan.

Aundia ikustaldiak artzean, naiz ta gure artekoen batzuk minduta etorri euren samin-tasuna agertzeko ta bere babesa eskatzeko ara *joan ziranean*. Aunditasun ori olakoetan kaltegarri gertatzen zan.

ELEIZEAREN BARRUTIK BEGIRATU EZKERO, PAULO AITA SANTUA AUNDI AGERTZEN JAKU MUNDUKO KATOLIKUEN AURREAN ETA KRISTO'REN ARTALDEAN

Iru milla gotzain, bakoitxa bere artaldearen buru ta arduradun eta artalde ta artzain guztien buru Aita Santua.

Mundu zabalean ainbeste eleiza, erakunde ta kristidau-talde eta guztietan dauka zerikusia aita Santuak.

Munduko eleizarik aundiena Erroma'n, eta axe Aita Santuarena, eta ondoan jauretze ederra.

Kristo'ren Ordeko, Erroma'ko Gotzain, Sartaldeko Patriarka...

Jaunagandik artua dau ardura aundi ori, baiña orrelan bete bearrekoa ete zan? Ez ete dago eginbear aundi ori beteteko itxura apalagoko erarik? Kristo'k gura dauan modukoa ete da erakundea ala beste batzuk ete dira Ebanjelio-bideak. «Zorioneakoak txiroak» esateko egoera ona ete da ori?

IRAKASLE AUNDIA IZAN DA PAULO AITA SANTUA ETA IRAKASLETZA ORRETAN BERE ABOTSA MUNDU GUZTIAN ENTZUTEN DA, BATZUNTZAT ITZALGARRI, BESTE BATZUNTZAT AZTERGARRI

Aita Santua uts-eziña dala esan eban Vaticano'ko lenengo Eleiz-Batzarrak, eta alan sinisten dogu.

Eta uts-ezin lez, Irakasle aundi lez agertu jaku Paulo Aita Santua.

Gai guztietan munduak jakin gura izan dau bere irakatsia, naizta gero azterpen zorrotza ta kritika gogorra egin.

Geuri be, ezin ukatu, bere irakatsiak beti ez jakuz atsegin izan beti ontzat eta egitzat artu ba'doguz be.

«Errien Aurrerapena» deritxon agiria txalogarri lez artu genduan esaterako, «Giza-Bizitza» deritxona, ostera, geiago aztertu dabe eta erantzupen gogorragoa izan dau gure artean.

«Zure anaiak sendotu egizuz» Pedro'ri esan eutsan jaunak, zeregin aundia ipiñi eban aren gaiñean.

Eta, azkenez, aldakuntza aundiak egin ditu Eleizan VI Paulo'k. Aundiagoak egingo zituan al izan ba'eban. Beteko al dau urrengoak arek egin barik itzi dauana. Etorriko al jaku gaur bear dogun lako Aita Santu egokia!

PELI ALDAZABALEN 16'gn

IDATZ- SARIKETA

Ain euskalzale ta mendigoiza]e izan zan Aldazabal tar Peli Eibartarra, il zanean, diruren batzuk itzi eban berak ainbeste maite eban tokian, Arrate'n, euskeraren alde zerbait egiteko. Onelan eta gizon oneri esker idatz-sariketa au jaio zan umetxoentzat, guda-ostetik lenengoz egin zana. Amasei urte oneitan beste gizon jator bat, Idoiaga'tar Andoni, Peli'ren adizkide aundia, arduratu da Aren asmoak egi biurtu daitezcan.

Baña Andoni gugaz dago eta berak baste iñork baño obeto azalduko dausku aurtengo idatz-sariketea zelakoa izango dan.

—Andoni, zergaitik arduratu ziñan sariketa onetzaz?

—Peli zana oso adizkide aundia neban eta bera il zanean diru pixka bat laga eban Arrate'rako, euskeraren aide zeozer egite]co eta bera eiztari aundi bat zan ezkeru baita eper eta koneju pare bat be Arrate'ko mendietan botatzeko.

—Orain arte noiz eta zelan egin dozue euskerazko sariketa au?

—Ba orain arte gitxi gora-bera udabarriko igande batean egin dogu.

Sariketa onetan Euskalerrri osoko gaztetxoak parte artu dabe (euren artean Kili-Kilitar askok).

Goizeko bederatzietarako Arrate'ra etorten ziran, Peli'ren animaren alde meza bat entzun ondoren, Arrate'ko landetan sariketa egiten genduan, alde batetik nagusiak, 11 urtatik 14 urtera, eta bestatik txikerrak 7 urtatik 10 urtera.

Gero umeen jolasak eta dantzak izaten ziran eta bien bitartean epaimakoak idazlanak (eunetik gora) zuzentzen ebezan.

Ordu bietan sariak emoten genduzan bizikletak, josteko makiñak, kañaberak, patiñak, konpaskutxak, karabinak, plantxak eta abar, parte artzen eben ume guztiak sari bat jasotzen eben.

Sariak emon da gero bazkari bat eta bazkalondoan bertsolariak eta txistulariak jendeari dantzan eragiteko.

—Talderen baten laguntasuna izan dozue?

—Bai, Kili-Kili taldeak beti lagundu dausku lan onetan eta asko gañera.

—Aurten be egingo dozue badaikit baiña gauza barri bat egin gura dozue ezta? Itz baten apurtxu bat sariketea gaurkotuz eta onelako garrantzi aundiko sariketa bat bear dan bezela egin, ezta onelan?

—Bai, egia esango dautzut. Gero ta ume geiago dator kuz sariketara ta naiz eta epaimakoak asko izan, ordu batzutan idazlan guztiak zuzentzeko ez dogu astirik izaten, au dala ta aurten beste era batera antolatu dogu.

—Ta zelan konponduko zorie ba?

—Begira, sariketa au beste urtetan bezela Euskalerrri osorako izango da, talde bi egongo dira, bata 7 urtetik 10'era eta bastea 11'tik 14'ra. Gaia, bakoitzak gura dauana, askatasun guztiaz, ori bai euskal-gai bat izan bear da edo Aberria, edo euskerea, erri-kirolak, gaurko jazoera], euskaldunen siñismena ta abar. Idazlanen luzacra «folio» batetik «folio» bira alde bietatik idatzita.

Idazlan au gaztetxoak euren etxeetan edo euren ikastoletan egingo dabe eta gero zuzenbide onetara bialdu bear dabe:

Euskera Lagunak
Apartado 321
Eibar

Idazlanak bialtzeko epea urrillaren 8'an amaitzen da.

—Idazlanak ze euskalkitan egin bear dira?

—Edezein euskalkitan, naiz bizkaieraz, naiz lapurderaz, naiz batuaz, naiz gipuzkeraz danak onartuak izango dira.

—Ederto, ta umetxoak idazlanak bialdu ta gero zer jazoko da?

—Epaimakoak idazlan guztiak irakurri ondoren .100 idazlan onenak aukeratuko dabez eta urrillaren 22'an, igandez, aukeratuak izango diran eun gaztetxo onek Arrate'ra joango dira, antxe bartan beste idazlan barri bat egin daien, eta urrengo igandean Eibar'ko antzoki edo zine batean sariak bananduko doguz.

—Sariak ugari izango dira?

—Bai urtero bezela ta asieran aitatu dautzudazanak eta alegiñak egingo doguz, esate baterako iru milla umek idazten ba dabe, danei saritxu bat emoteko ta baita Kili-Kilirako arpidetza ere ziur asko.

—Andoni, gura dozu beste zerbait esan?

—Bai, Euskalerrriko ume guztiak dei egiten dautset sariketa ontara idazteko ta bide batez eskerrak emoten dautsedaz lan au aurrera eroateko laguntzen daben guztiei, sariak emoten dabezan etxeei ta Kili-Kili taldeari,

—Eskerrikasko, Andoni, eta zorionak egiten dozun lanagaitik.

Eta zuek Euskalerrriko gaztetxoak ba'dakizue zer egin bear dozuen:

Folio bat edo bi aide bietatik idatzi euskal-gai bateri buruz eta urrillaren 8'reko len emondako Eibar'ko zuzenbidera bialdu.

Zuetariko 100 onenak urrillaren 22'an beste idazlan bat egingo dozue Arrate'n eta urrengo igandean sariak bananduko dira Eibar'ko antzoki batean.

Zuen zain gelditzen gara. Aurrera mutillok!

ZANGRONIZ

ARRANTZALEAK

Lebatza tA bokarta (Bermio'tik)

LEBATZ-ZALEAK

OPOR-ZIOA.—Gure arrantzale lebatz-zaleak, zortzi eguneko oporketea egin dabe.

Maiatz-illearen 12'tik 20'ra ain zuzen be.

Oporketa ori egiteko, zioa billatu dabe euren artean.

Euren artean aurkitu daben zioa, auxe da: «Arrain-Bola» deritxon arrain-tresnak, eurak itxasoan jaurtirik arraintzan ziarduela, apurtu dautsezelako.

* * *

NORTZUK APURTZAILLEAK?—Sareak dandarrez dirala, urez-ondoan dabiltezan itxasontzietako gidariak, eurak, arraintzarako lemadun diranak, ain zuzen.

Oneik apurtu dautsez arrain-bolak eta eurokaz gerturik egon diran arrain-tiesnak, arrantzale lebatz-zaleak diñoenez.

* * *

MADRID'ERA.—Oneik Madrid'era, España'ko Uri-Burura, joan dira, ango agintariakaz berba egitera, euren naigabeak, arrantzale lebatz-zaleen naigabeak aurkeztuz. Areek dana entzun dautse.

Eta euren naigabeen artean, au agertu dautse: «ARRAIN-KALA» guztiak, amu-arrainzaleak aurkitutako arrain-kalak dira.

* * *

AGIRIA BEAR.—Baiña arrantzaleak diñoenez, Madrid'eko agintariak agiririk ete dauken esan dautse.

Agiri ori Madrid'era eroaten ba'dabe, orduan izango dirala benetan zigortuak kaia orreitan arrapatuko dabezan «dandarrezdun» itxasontzietako arduradun guztiak, bien bitartean ez.

* * *

Baita beste au be esan dautse arraintzale lebatz-zaleai: Kala-jagole izango clan itxasontzi ariña imiñiko dautsela euren etsai edo arerioak arrapatzeko.

Eta au bebai: arrantzale lebatz-zaleak arrapatzen ba'ditue dandarrezkoak euren arrain-kaletan sareakaz lañean diarduela, bost milla ogerlekoko zigorra baiño aundiagorik ezin dautsela imiñi.

* * *

EZ POZIK, BAIÑA LANERA.—Oneik jakin ondoren, gure arrantale lebatz-zale trebeak, Madrid'etik ez dira etorri ados «konforme».

Madrid'etik etorri ondoren, batzartu ziran arrantzaleen anaidiko aretoan eta batzar orretan erabagi batzuk artu ondoren, asi dira barriro arraintzan.

Arrapatu dagiela asko.

BOKART-ZALEAK

ARRAINTZA ONA, DIRU GITXI.—Gure arrantzale bokart-zaleak, trebetasun guztiaz irau ten edo jarraitzen dabe bokart-arrainak arrapatuten.

Ondo edo aski arrapatzen ditue, baiña zoritxarrez edo, saltza marka dauke aurtengo ekiñaldi onetan.

* * *

CANARIAS'ERA.—Onexegaitik, batzuk maiatz-goienan bokart-arrapatzea itzi eta Canarias'eko itxas-aldera joateko gertakizunak egiten geratu dira, emengo arrain-lekuetara urten barik, kaian.

Gelditzea egin daben batzuk, ariñen gertatu diranak, urten dauskue gure kaiatik esandako, Canarias'eko itxasalderantza.

Arraintza ona egin dagiela guztiak eta pozik izan daitezala.

*Lebatz-zaleak errazoiz dagoz
baiña ori ezin lortu;
zergaitik ori gertatutzen dan,
bear gara gogoratu;
ludi onetan len da orain be
aberatsak diruz lotu,
orrexegaitik lebatz-zaleak
errazoiz ezin jabetu.*

*Bokart-zaleak bokarta sendo
baiña merkeegi saltzen,
sasoia baiño lenau gogaitu
bokarta arrapatuten;
atun arraiñaz asiak dagoz
gertakizunak egiten,
batzuek gertuz urten dirade
Canarias urretuten.*

AZPEITIA'tar Gotzon'ek

EUSKERAZALEAK

Bizkaia'k bizlaieraz, Gipuzkoa'k gipuzkeraz, Lapurdi'k lapurdera'z... errialde bakoitzak beraren euskalkiz eta eraz itz egiten dogun euskerari odola edanik, azur-muiñak jan daroatsazan kapar inguingarriak generatu jakoz, amar urtez onantza, gure izkuntzari.

Etorriko diran amar urteetan oraingo au lako zaputz-aldi bat eta... Jaungoikoa lagun !

* * *

Ona emen kaparrak eta makarrak:

«Herrixkaktako hauzak beherat, ziutate eta kapitaletan poblazio densitatea gorakada alokatuan ».

«Despidatzaren kontramanifestamena organizatzeko entrepresaren lokaletan asanblatu ziren».

«Pisu zentrokoen deklarapen fatsuak, mugiarazi zien kontrakolpeatzera».

«Identitatu gaberik inor pertsona ez masakratzeko, ez persegitzeko, ez detentzeko. Asanblada pleno bateten tratatu zuten akordio hori».

«Estatuto propioaren deretxo errealetan eksklusiboa herriak du, etxeko kausa printzipaletan partaide izan eta parte artzeko».

«Positiboki dakigu ez duela libertari, edota anarkistazko edozein kalifikatibo teorikoki eta praktikoki errefusatuko».

* * *

Nire aldetik orain : Gaur egungo euskalera ala erdeleuskara honhen barrih belahunaldi barriek jakin hahal dagien, hantxuras petxuharte hahundidun honbrek herohe hiskribularirik bagenduh, mas harriba hucusih ber hegin duzuhezan lakoh palabras dah frases ganbareha bete-beterik dot horahincliho.

LANDAJUELA'tar A'k

ZER DA

—Erromesa? Santutegirik santutegi, santuen maitemiñez dabillen gizona.

—Uzta? Lurrak urtean edo aldi baten emoten dauana.

—Lorratza? Norbait egon edo dan tokian izten dan ezaupidea.

Eiza? Basa-piztiak arrapatzeko, gizonak egiten dauan lana, kazari-lana.

Abeltzaiña? Ganadu edo abere aundien zaintzaillea.

—Andapara? Errotetara doan erreka ura gelditzen dan tokia. Erdel-berbea.

—Pairatu? Nekeak artu edo artu-azo.

Gomutapena? Zerbait edo norbait gomutara, gogora, ekarteko alegiña. Oroipena.

—Jauretzea? Jaunen etxea. Palazioa.

—Erakundea? Gizarte-lan bat egiteko sortzen dan talde egokitua. Estruktura.

—Aztergarria? Onartu orduko zelakoa dan barrutik ikusi leiken gauzea.

—Oporra? Zergaitik edo agaitik lanik egiten ez dan aldia : Gaur euria da eta baserritarrak oporra dauke.

Kaparra? Aramu-antzeko pizti txiki aginkalaria.

Makarra? Argala, idargea.

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

***Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-
goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan
aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baiet-
za agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezar-
teko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo dogu-
zan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Biz-
kai'ko Aurrezki-Kutzak guztiontzat etorki-
zun ederrago bat egitea gura dauala
adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear do-
gu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.

